Xedapen Orokorrak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1880

AGINDUA, 2010eko martxoaren 18koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Lehendakaritzako Kontratazio Mahaia aldatzeko dena.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1996ko uztailaren 12ko Aginduaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluaren eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren babesean, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Kontratazio Mahaia sortu zen.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak 2003ko uztailaren 30ean eta 2008ko ekainaren 12an emandako aginduen bitartez, Kontratazio Mahaia sortzeko Agindua aldatu zen, batez ere, Lehendakaritzaren egitura organiko eta egitekoak ezartzeko dekretuek eragindako aldaketei egokitzeko kontratazio mahaiko kideen izendapenak.

Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretua urtarrilaren 20an indarrean jarri denez, Lehendakaritzako organoek kontratazio alorrean dituzten eskumenak aldatu dira. Horren ondorioz, berriro aldatu behar da Kontratazio Mahaia 1/2010 Dekretuak eragindako egoerari egokitzeko.

Horrenbestez, Lehendakaritzako idazkari nagusiak proposatu eta Kontratazio Administratiborako Aholku Batzordearen txostena aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Kontratazio Mahaia aldatzea.

Lehendakaritzako Kontratazio Mahaia sortzeko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1996ko uztailaren 12ko Agindua aldatu da, eta honela gelditu da:

1. artikulua.– Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Kontratazio Mahaia.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Kontratazio Mahaia sortu da, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artiku-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

1880

ORDEN de 18 de marzo de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda, de modificación de la Mesa de Contratación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

Por Orden de 12 de julio de 1996, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, y al amparo del artículo 4 y la disposición adicional novena del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se creó la Mesa de Contratación de la presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

Mediante sendas Órdenes de la Consejera de Hacienda y Administración Pública de fechas 30 de julio de 2003 y 12 de junio de 2008 se introdujeron modificaciones en la Orden de creación de la Mesa derivadas principalmente de la necesidad de adecuar las designaciones de los componentes de la Mesa de Contratación a las modificaciones habidas en los correspondientes decretos de estructura orgánica y funcional.

La entrada en vigor el pasado día 20 de enero de 2010 del Decreto 1/2010, de 12 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, ha venido a modificar las competencias que en materia de contratación tienen los órganos de la misma, lo que requiere que se proceda nuevamente a una adecuación de la actual Mesa de Contratación a la situación resultante del Decreto 1/2010 citado.

En su virtud, a propuesta del Secretario General de la Presidencia y previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONGO:

Artículo único.– Modificación de la Mesa de Contratación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

Se modifica la Orden de 12 de julio de 1996, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, por la que se crea la Mesa de Contratación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, que quedará redactada como sigue:

Artículo 1.– Mesa de Contratación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

1.– Adscrita a la Dirección de Servicios se crea la Mesa de Contratación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, para el ejercicio de las fun-

luetan aurreikusitako esparruan dagozkion egitekoak betetzeko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren eta Emakumearen Euskal Erakunde Autonomoaren espedienteei buruz.

2.– Aipatutako mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzaren titularra. Titularra izendatu gabe dagoenean, titularra ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo legezko beste arrazoiren bat izaten denean, Autonomia Garapenerako Zuzendaritzaren titularrak ordeztuko du.

Bokalak:

Kontratazioa eskatu duen zuzendaritzak izendatutako pertsona bat, zuzendaritza hori ordezkatuz.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat.

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari bat, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 3. eta 5. idatz-zatietan jasotako egitekoetarako eta bertan ezarritako araubideari jarraiki.

Aholkulari juridiko bat: zuzenbidean lizentzia duen teknikari bat, Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzari atxikitakoa, lege aholkuak emateko.

Idazkaria: Jaurlaritzaren Lehendakaritzako teknikari bat; hitza izango du, baina botorik ez. Teknikaria izendatu gabe dagoenean, teknikaria kanpoan dagoenean, gaixorik dagoenean edo legezko beste arrazoiren bat izaten denean, Zerbitzu Zuzendaritzaren titularrak ordezkoa izendatu beharko du, zuzendaritza horri atxikitako langileen artetik.

3.– Kontratua sustatu duen organoa Emakumearen Euskal Erakunde Autonomoa edota Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea denean, Emakunderen Idazkaritza Nagusiaren titularra izango da mahaiburua eta zuzenbidean lizentzia duen teknikari bat, Emakunderi atxikitakoa, izango da aholkulari juridikoa.

2. artikulua.– Ordezkapenak egiteko araubidea.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, agindu honetan berariaz zehaztu ez diren izendapenak eta aurreikusi ez diren ordezkapenak Lehendakaritzako idazkari nagusiak ebatziko ditu. Izendapen horiek espedientean jasoko dira eta egiterakoan ahalik eta aldaketa gutxien egon dadin saiatu beharko da.

ciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, en relación con los expedientes de la Presidencia del Gobierno y del Organismo Autónomo Administrativo Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

2.– La referida Mesa de Contratación estará compuesta por las siguientes personas:

Presidencia: el o la titular de la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico. En casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal le sustituirá el o la titular de la Dirección de Desarrollo Autonómico.

Vocales:

Una persona designada por el o la titular de la Dirección demandante de la contratación, en representación de la misma.

Una persona en representación de la Oficina de Control Económico.

Una persona en representación de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

Una persona en representación de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, designada por su titular, en los supuestos y conforme al régimen previsto en los apartados 3 y 5 del artículo 6 del citado Decreto 136/1996, de 5 de junio.

Un o una asesora jurídica: persona técnica con licenciatura en derecho adscrita a la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico, que ejercerá las funciones de asesoría jurídica.

Secretaría: una persona técnica de la Dirección de Servicios de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, con voz y sin voto. En casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, corresponderá a la o al titular de la Dirección de Servicios el nombramiento de la persona suplente, de entre el personal adscrito a su Dirección.

3.– En aquellos casos en los que el órgano promotor del contrato sean el Organismo Autónomo Administrativo Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer o la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres, la presidencia de la Mesa de Contratación corresponderá al o a la titular de la Secretaría General de Emakunde y la vocalía de asesoría jurídica recaerá en una persona de nivel técnico con licenciatura en derecho adscrita a Emakunde.

Artículo 2.– Régimen de sustituciones.

Conforme a lo dispuesto en el párrafo segundo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por el Secretario General de la Presidencia. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratu da Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko ekainaren 12ko Agindua. Agindu horren bitartez, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Kontratazio Mahaia sortzeko 1996ko uztailaren 12an emandako agindua aldatu zen.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 18a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 12 de junio de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, de modificación de la Orden de 12 de julio de 1996, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, por la que se crea la Mesa de Contratación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2010.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.